

Teodora Arakistain

*Elgoibar,
Gipuzkoa
(1907-2003)*



Aurkibidea

Biografia



Sallobente-Ermuaran (San Lorentzo) auzoko Iriarteberri baserrian jaio zen eta auzo berean bizi izan zen beti, Antsola baserrian. Gurasoak ere biak elgoibartarrak zituen. Ezkondu aurretik bi urtez neskame egon zen Biarritzen konde batzuen etxean. Baserriko bizimoduari buruzko eta Biarritzen pasatako urteei buruzko azalpenak ematen ditu.

Zintak

EGB-028

- **Proiektua:** Elgoibarko euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Ibon
- **Data:** 1999-01-01
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Irisarri, Estitxu

Pasarteak

1. Irakasleak urritz-makilarekin jotzen zituen

- **Erref:** EGB-028/005
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:09:10. **Bukatu:** 00:10:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Irakasleak urritz-makilarekin jotzen zituen okerra egindakoan; hala ere, neskak baino mutilak gehiago jotzen zituen eta bera ez zuen inoiz jo.</p>

2. Gerra denborako bizipenak

- **Erref:** EGB-028/007
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:10:28. **Bukatu:** 00:13:28

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>1935ean ezkondu, eta 1936an gerra zibila. Nazionalek bederatzi hilabete egin zituzten Elgoibarren. Bera ume jaioberria zen eta beldurrez egoten zen. Tiroek ateak zeharkatuko ote zituzten beldurrez, koltxoiak jartzen zituzten. Senide batzuk eta inguruko batzuk ezkutatu egin ziren. Neskak ere eraman nahi izaten zituzten. Atzetik moroak zetoze eta haiek txarragoak zirela esaten zieten beraiekin joateko.</p>

3. Ezkondu eta urtebetera senarra gerrara

- **Erref:** EGB-028/008
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:13:28. **Bukatu:** 00:15:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Ezkondu eta urtebetera, Teodoraren senarra ere gerrara joan zen, bera ume txikiarekin utzita. Aurretik soldadutza marinan egin zuen beste bi urtez. Gerrara joan zen eguneko kontuak. Gutun bidez jasotzen zuten haren berri.

Transkripzioa

- Aitxitxa ze ibili zan, kanpuan orduan?
- Aitxitxa? Bai, Valladolidera juan zan eta gero frentian [zain, zain han].
- Zenbat debora egon zan han?
- Urte t'erdi-edo, ixa bi. Ya lehen hiru urte ixa einda zauan marinan.
- Marinan ze ein zaban, soldautzia?
- Soldautzia marinan zertu zaban.
- Zenbat, hiru urtian?
- Eta gero Republikia etorri zanian etorri. Hiru urten bat e... hiru urte osatu be etorri zan, e! Zortzi-hamar hillabete-edo, zortzi-edo falta [...] Republikia erten zabanian, ba soldauak etxera [baltzen] zittuen orduan. Bizimodu [galanta haura bazuan, ba]? Gero jun zan, santa-eske egunian juan zan gerrara. Ta Andres ume txiki-txikixa ta...
- Jo, ba urtiak orduan eitten zittuan urtiak, ez?
- E?
- Urtiak ein ta bi urtetara, bi egunetara.
- Bai, bai ba. Urtiak ein [...] ta bi urtetara hogeta, bai, hogeta bederatz zittun egunian, jun zan soldau gerrara. Ta Andres txiki-txikixa hemen nik. Ta orduan etorri zian santa-eskaliak hona. Ta akordatzen naiz aldeko Bitorik, [Joseñ amak] esaten zaban: "Soiñuakin zatozte hona? Errosarixuakin etorri bihar da, errosarixuakin". Gu hamen erdi-negarrez, orduaintxe erten zaban trenera ta [...] soiñua, bueno!
- Trenian jun zan?
- Bai, trenian. Gau-erdiko trenian jun zan, 11ak aldiñ erten zan eta bestiak eguardixan hemen soiñuakin.
- Ta bere barririk ez zenuten eukitzen?
- Bai, [...] eukitzen genduan berrixa. Bai. Eta gero beste bat —oin hil zan, gerotxuao [...]— oso majua, zera, Baserrin kuñaua zan gaiñera bera. Eta haura ere nazionalistia zala, ez dakit ze zala, neskia zaukan gaixoik eta ez zion kartaik ez zion pasatzen eta gure zerak, Lorentzok, eskribitzen zaban harentzako kartia, haren neskiari kartia. Ta, ba, [...]. Bai.
- Orduan, ezkondu ta gero...
- Urtia.
- Urtera, hala!
- Bai, bai. Urtia. Bai ba, abillian ezkondu eta hurrengo julixuan, hurrengo juliuan, e... juliua [...], berdin da.
- Bai, zela esaten dozu?
- Guk e... juliua, horrek esaten dittue, ez dakit, julio, junio, julio guk erderia sartzen dou asko, e!
- Bueno...
- Lehengua hori da. Baiña oin, ba... ta asko gaiñera. Abendua ta oin be esaten dou bestera, e!

4. Soldaduak izan zituzten baserrian

- **Erref:** EGB-028/009
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:15:54. **Bukatu:** 00:18:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

11 senide egon ziren baserrian gerra denboran, Eibarkoak ere bertara etorri zitzaizkien eta. Gero 18 soldadu ere izan zituzten, beren zaldi eta guzti. Nongoak ziren soldaduak. Horren inguruko kontuak. Soldadu bati buruzko anekdota. Bederatzi hilabete egin ostean, Zumarragara joan ziren.

Transkripzioa

- Oseake gerra garaixan gaizki pasau zenduten.
- Gaizki, pentsaizu, gaizki kontua, hamaika lagun egon giñan gerratian hemen, e! Eibarkuak.
- Eibarkuak?
- [Imanol ta Danel].
- Hemen egon zian [harek]?
- Bai, ba, bederatzi hillebetian, San Lorentzon ibili zian eskolan. Ta gero hemen egon zian hillabete ta erdixan soldauak, hemezortzi. Zaldi ta guzti. Ta gero, juaten zien e... zerbitzera [kanbixua] erutera, muniziuera erutera Karakatera hamendikan. Eta hemen egon zian lau eta aldekkuan reketiak bi eta gurian lau soldau lo eitten ta bestiak zerian, San Lorentzon. Eta San Lorentzon batzuek ta bestiak hemen, gure sapaixan. Hortxe, egunero. Juten zian txandan zaldixekin jana erutera hiru [zaldikada]. Gero hemen jarduten eben jokuan-ta. [...] bat zauan nafarra eta bestia, bi napar, baiña bat, zapatak zaukazen zatittuta, bai, zapatak e... apurtu samartuta zaukezen. Eta ze ein zaban berak? Brigadiak eskatu ein ziozen zapatak eta ez [...] lagunak. Eta badakizu ze ein zaban? Hartu zelan, e... [trakederan] aizkoriakin zatitzeko, hola ebai berixak ematiarren ta lotu zerakin, irabaliakin han jun zan ta bate eman ez ta zapatak ixa galduan zapata zaharrekin etxera. Ze barre orduan! Guk harekin barre...! Baiña hemen jokuan jardutzen zebeu lau edo bostek, bai. Ta gurian [...] baiña hola zeoze arrautzia edo hola jaten zebeu, ta holan pasatzen zebeu. Eta San Lorentzon [...] juten zian barreñoi handi birekin, hola, balda birekin kafietesnia ekartzera. "Tupi" esaten ziuere eurek, beltz-beltza etortzen zan ta. Eske han zauan e... sukaldia ta beti brigadia, koziña, sukaldian-ta holaxe. Haura juten zan baldiekin ta ekarri eta batzuek, dirua zaukenak, ba, esnia guretik hartu ta [...] zuritu eitten zebeu, [...] beste batzuk dauan moduan. Bizimodua. Hemen hillebete ta erdi ein zittuen ta gero Zumarragara jun zien, baiña penaz jun zian, ohittuta zeuden-ta... [...].

5. Anaiak elkarren kontra gerran

- **Erref:** EGB-028/011
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:19:39. **Bukatu:** 00:20:21

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerran egon ziren senideak. Bi anaia elkarren kontra ibili zirela kontatzen du.

6. Eztei-bidaiatik itzulitakoan ezkon-ospakizuna

- **Erref:** EGB-028/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:20:21. **Bukatu:** 00:22:11

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

<p>Elgoibarren ezkondu eta Donostian hiru egun egin zituzten eztei-bidaian. Gero, larunbatean etxean ospakizuna egin zuten Gelatxo soinujolea eta guzti. Ospakizunaren inguruko kontuak.</p>

7. Biarritzen kondeen etxean neskame

- **Erref:** EGB-028/014
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:23:46. **Bukatu:** 00:24:31

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Neskame egin zituen bi urte Biarritzen konde batzuen etxean. Zerbitzari asko zeuden. Hala ere, etxean beti gonbidatuak izaten zituzten eta lana izaten zuten.

8. Frantsesez hitz solteak ikasi zituen

- **Erref:** EGB-028/016
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:25:51. **Bukatu:** 00:26:31

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Kondeak espainiarrak ziren eta frantsesez hitz solte batzuk ikasi zituen bakarrik. Sukaldaria Hondarribikoa zen.

9. Baserriko bizimoduaren aldaketa

- **Erref:** EGB-028/018
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:27:11. **Bukatu:** 00:29:01

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriko bizimodua asko aldatu da; aurrerapenak. Gari-sasoia izaten zen sasoirik gogorrena. Senarrak etxean lan egiten zuen, obretan ere ibili zen arren.

10. Esne-partitzera astoarekin

- **Erref:** EGB-028/021

- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:32:15. **Bukatu:** 00:32:35

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Iriarte-Etxeberritik esneekin kalera joaten zen saltzera, astoarekin.

11. Kurutzetara edo Kamiñerokora erromeriara; San Lorentzoko erromeria

- **Erref:** EGB-028/023
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:34:55. **Bukatu:** 00:36:13

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromeriara Kurutzetara edo Kamiñerokora joaten ziren. Plazan ere musika egoten zen eta han dantza egin ostean Kamiñerokora joaten ziren eta handik San Lorentzora. San Lorentzoko erromeria galduta egon zen sasoi batean. Ze soinujole egoten ziren. San Lorentzoko festak.

12. Umetan ardizain mendian

- **Erref:** EGB-028/025
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:37:08. **Bukatu:** 00:38:53

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Ardizain egoten zen umetan mendian. Zein ingurutan ibiltzen zen.</p>

13. Herri bakoitzean euskara desberdina

- **Erref:** EGB-028/029
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:41:17. **Bukatu:** 00:43:32

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Herri guztietan hizkera desberdina egiten dela dio. Bakoitzaren inguruko iritzia. Azkoitia aldera euskara garbiagoa egiten dutela uste du, Elgoibarren erdarakada gehiago erabiltzen direlako. Lehen euskaraz esaten zituen zenbait hitz gaur egun gaztelaniaz esaten dituela dio.

14. Elgoibarko auzoen artean alderik ez euskararen

- **Erref:** EGB-028/032
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:46:00. **Bukatu:** 00:47:50

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Elgoibarko auzo batetik bestera euskara ez da aldatzen. Orain kanpotarrak ere etorri direnez ezkondata haien euskararen eragina egongo dela uste du. Telebistako euskara ulertzeko ez du arazorik. Itziar aldean euskara batuarengandik hurbilagoko euskara egiten dutela dio. Armaitta baserriko ama omen zen egokia hizketan.

15. Biarritzeko "Tres fuentes" etxean neskame

- **Erref:** EGB-028/038
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:54:06. **Bukatu:** 00:56:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Biarritzen neskame egon zeneko kontuak. Eurak joan zirenean kondea hil egin zen eta kondesa semearekin geratu zen. Bost zerbitzari eta txoferra egoten ziren. Etxea handia zen jardinarekin, "Tres fuentes" izeneko eta txoferrarentzat beste etxe bat zeukaten. Honen inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Oseake, Frantzian-ta ibilitta... bueno, Frantzian, Iparraldian ibilitta zaoz.
- Bai. Bi urte, urte bi ta erdi ein najaituan behintzat han, e...
- Ez nakixan.
- Ez zekizun? Hantxe [...] nitzuan, ba, [...]. Bai.
- Joe, ondo bizi ziñan zu ere!
- Bai hoixe!
- Bueno, zu, edo harek hobeto.
- Bai, harek hobeto! Pentseik ba, gu jun ta hiru hillabetera hil ein zuan kondia.
- Hil ein zan han?
- Gu jun ta [...] hil ein zan, hillabetian egon zan gaixorik [...] hil zan kondia, gero, kondesia geratu zan semiakin. Gero beste seme bi ta alaba ezkondata zerakin, e, Romanonesen entzutia eukiko dozu? Madriko aberatsena. Romanonesen semiakin zakan ezkondata alaba bat, Condes Alleres: condes [...] y condes Alleres. Harek egoten zien udan. Ba, bi hillabetiak pasatzen zittuen hantxe. Harek ekartzen zittuen euren kriedak, txoferra ta dana. Ta gu han egoten giñan, bederatzi lagun igual, [...] kriauterixia!. Ostian, bost: dontzeilla bi; geu, lau; [de tutela], bost; bost kriau, [mutilla "de tutela"] ta txoferra aparte.
- Ez zebeñ etxe bakarra eukiko harek?
- Ez, u! Etxiak [...] gaiñera harek [...] jardiñak ikaragarrixak, han zauan etxe haundi bat, txaleta, eta beste etxe bat txoferrantzakua, aparte jardiñian. Jardin handi bat, itturri handi bat, "Tres Fuentes", "Trois Fonts" zan, "Trois Fonts" zaban izena, "Tres Fuentes". Hiru txorro holaxe ta "Tres Fuentes" etxiak izena [...].
- Jo, ba, zu hamen ohittuta ta derrepente kanpora jun eta holako etxe batera jutia...
- Baiña kriauena-ta pegante, baiña guk aparte, eskillara banatatik. Bai, guk

etxia pegante, baiña guk geure bizimodua aparte. [... tia Maribik eta...]
bazkarixa zerbitzen zeben bi lagunek, batek saltsia ta bestiak aurretik, hiru
lagun, harek zerbitzen bi lagun. Geu be holaxe ibiltzen gaittuk. Bi lagun. Ta
ostian, e... [...] gonbidau barik orduan... hirugarrena bai askotan orduan.
Jesus! [Ze diru...]. Herrixa politta Biarritz, dotoria.

Arakistain, Teodora | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com